

ISSN 2530-9358 Donostia / San Sebastián




[www.ornitho.eus](http://www.ornitho.eus)



2. Zenbakia. 2. Seihilekoa, 2017

# Ornitho Berriak

[www.ornitho.eus](http://www.ornitho.eus)



**2. Zenbakia**

**2. Seihilekoa, 2017**

# Ornitho Berriak

[www.ornitho.eus](http://www.ornitho.eus)

## **Atalak**

- 4 Aipamen nabarmenduak
- 11 Zer berri
- 12 Laster ornithon...
- 14 Proiektuak
- 15 Protagonistak
- 19 Nire mini-gida



[www.ornitho.eus](http://www.ornitho.eus)

 **aranzadi**  
zientzia elkartea



[www.ornitho.eus](http://www.ornitho.eus)



## ORNITHO BERRIAK

2. Zenbakia. 2. Seihilekoa, 2017

ISSN: 2530-9358 Donostia / San Sebastián

Argitalpen Batzordea: Juan Arizaga, Maite Laso, Nere Zorrozua, Beñat Díaz

Argitaratzalea: Sociedad de Ciencias Aranzadi. Donostia - San Sebastián  
(<http://www.aranzadi.eus/category/ornitologia>)

Esteka: [http://www.ornitho.eus/index.php?m\\_id=20016&lang=es](http://www.ornitho.eus/index.php?m_id=20016&lang=es)

Kontaktua: [ornitho@aranzadi.eus](mailto:ornitho@aranzadi.eus)

[www.ornitho.eus](http://www.ornitho.eus) plataforman laguntzen duten erakundeak



Arabako Foru  
Aldundia  
Diputación  
Foral de Álava



Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia



Gipuzkoako Foru Aldundia



suspergintza  
elkartea



URDAIBAI  
BIRD CENTER  
ARANZADI SOCIETY OF SCIENCES



Geoparkea  
Euskal Kostaldea - Costa Vasca

# Aipamen deigarriak



Shutterstock

Sasi-txinboa

## Txinbo interesgarriak



Txinboen hegazti taldea, espezie asko biltzen dituen taldea da. Batzuk gure latitudeetan oso ohikoak dira, beste batzuk berriz ez. 2017ko azken seihileko honetan, gure eskualdean ohikoak ez diren txinboen zenbait aipamen interesgarri eman dira: sasi-txinboarena, Sylvia curruca, eta ezkai-txinboarena, Sylvia conspicillata. Sasi-txinboa espezie migratzaile transahararra da, habia Europa iparraldean eta Asiako parte batean egiten du eta oso arraroa izaten da Iberiar penintsulatik pasatzea. Izan ere, normalean, Europako populazioek Afrikarako migrazioa Europa Ekialdetik eta

Ekialde Hurbiletik egiten dute. Aurten espezie hau Euskadin ugalketa ondoko pasean zehar ikusi da eta Gipuzkoan bi aipamen eman dira: bat Plaiaundin, J. Esparciak egina, eta bestea Iñurritzan, E. Azkue eta E. Salvatierrak egina. Ezkai-txinboa penintsulan ugaltzen da. Zuhaixtxka formako habitat mediterranearei lotua dagoenez bere presentzia penintsularen iparraldean ezohikoa da. Hala eta guztiz ere, 2017ko azken seihilekoan gutxienez bi ale behatu dira (emea eta arra) Gorlizen, abuztua eta irail bitartean, I. Sarabia, C. de Dios eta J. Cañadasen aipamenekin.

Uroilanda hankaberdea



# Rallidae

## b a k a n a k



Rallidae familiak hegazti espezie multzo bat biltzen du. Espezie hauetako beren portaera zaputzagatik eta zingiretako landaredi itxietatik mugitzeko duten joeragatik zailak dira ikusten eta behatzen. Horrexegatik, hauei buruzko aipamenak urriak izaten dira, batez ere Euskadin soilik pase garaian agertzen diren espezie migratzailleei buruzkoak.

Horietako batzuk gainera ez dira urtero pasatzen. 2017ko azken sei hilabetean, eskualdean ohikoak ez diren bi espezieren aipu bana izan dira: uroilanda hankaberdearena, *Porzana parva*, eta giloiarena, *Crex crex*. uroilanda hankaberdea gure hezegunetan antzeman zen, 2007tik Jaizubiako (txingudi) paduretan burutzen den eratzuntze zientifikoaren kanpainari esker, hau izanik eratzuntze estazioko lehen aipamena, nahiz eta ez izan lehena eskualdean. Rallidae familiako beste

hegazti bat gure latitudeetan oso urria den giloia da. Espezie honen ugalketa Iberiar penintsulan ematen denik ez dago baieztagatua, nahiz eta existitzen diren ugalketa garaian kantuan entzundako arren aipamenak. Espezie honen aipu bakarra 2017an I. Zuberogoitiak eman zuen, ehiztari batek botatako ale batena, urriaren 6an Gatikan (Bizkaia). Espezie hau mundu mailan mehatxatutzat jotzen da bere populazioen atzerakadagatik.

# Narrastiak eta anfibioak:



Schreiber muskerra

*espezie bakanak beren  
banaketa-eremuaren mugan*



*Euskadin aurkitzen ditugun narrasti eta anfibio espezie asko urriak dira beren distribuzio geografikoaren mugan aurkitzen direlako*

Narrastien kasuan, espezie hauetako bat Schreiber muskerra *Lacerta schreiberi* da, espezie endemikoa Iberiar penintsulan, ipar erdialdean presentzia zabal batekin, bere distribuzioa prezipitazioei oso lotua baitago. Euskadin, musker honen banaketaren ekialdeko

mugan, arraroa da espeziea eta bere aipamenak oso urriak eta noizbehinkakoak dira. 2017an ale batzuk antzeman dira, eta horien artean nabarmenzekoa da Zarautzeko aipamena, uztailaren bukaeran eman zena E. Baderren eskutik.



Shutterstock

Baso-igel iberiarra



Anfibioei dagokienez, baso-igel iberiarra, *Rana iberica*, Euskadin banaketa murritza duen beste iberiar endemismo bat da. IUCN-k “Zaugarri” moduan katalogatutako espezie bat da. Gipuzkoan aipamen bakarra zegoen eta aurten berriz antzeman da espezie hau Eskoriatzan, guztira 15 ale zenbatuz, I. Novoa eta I. Ugarteren eskutik.



Kirbyi burruntzi arra

I. Mezquita

# Burruntzi afrikarrak Euskadin



Geroz eta gehiago dira lehen aldiz Iberiar penintsula aukeratzen duten jatorri subsahariarreko odonatoak.

*Trithemis* generoko bi espezieren kasuan bezala, 2017an zehar behatu zirenak Euskadin: Kirbyi burruntzia *T. kirbyi* eta burruntzi bioleta *T. annulata*. Kirbyi burruntziak Afrikan du jatorria eta bere distribuzioa soilik Afrika, Arabiar penintsula eta azpi-kontinente Indiarrera mugatzen zen. Europako lehen behaketa Cerdanyan antzeman-dako ar batena izan zen, 2003an.



Burruntzi emea

I. Mezquita



Geroago aipamen berriak eman ziren Europako hegoaldeko zenbait herrialdetan. Euskadiri dago kionez, Araban hainbat ale detektatu dira, I. Gar-nika eta J. Rieroren eskutik Vitoria-Gasteizen eta Bernedon D. Santamariaren eskutik. Burruntzi bioletarekin antzeko zerbaite gertatzen da. Espezie honek lehen aldiz Iberiar penintsula aukeratu zuen orain dela hamarkada batzuk eta gaur egun Pinirioek osatzen duten barrera geografikoa gainditua dute eta bere banaketaren azalera Frantziaraino heltzen da. Euskadin, probintzia guztietaur aurkitzen da. Badira aipamenak Gipuzkoan (J. Otaegik, Orendainen; I. Gutierrez eta J. Plazak Irunen; A. Herrerok Hondarribian), Araban (J. Manzano, Vitoria-Gasteizen), baita Bizkaian ere (R. Asensiok Mungian).



Apatura ilia

shutterstock

# Tximeleten aipamen historikoak Gipuzkoan



Tximeletei dagokienez, aipatu behar dira Gipuzkoarako oso interesgarriak diren bi behaketa. Lehena *Apatura ilia*-ri buruzkoa, bigarren aipua Gipuzkoan, I. Mezquitak antzemana Ataunen; bigarrena *Carcharodus flocciferus*-ari buruzkoa, Oñatin behatua I. Novoaren eskutik (lehen aipamena Gipuzkoan).

Zorionak bi behatzaleoi horren aipu interesgarrien ekarpenak egiteagatik [www.ornitho.eus](http://www.ornitho.eus) -en bidez!

# Berriak



shutterstock

Plataformak aipamenak igotzeko eskaintzen dituen aukeren artean zerrenda osoak dira gerora kalitate hobeagoko analisi eta ikerketa bat egiteko aukera ematen dutenak. Ikusitakoaren datu solteak sartzen ibili ordez, zerrenda osoek behatzailak leku eta denboratarte zehatz batean ikusi eta entzundako guztia biltzen duela ziurtatzen digu. Horrela, zerrenda osoek analisi askoz baliotsuagoak eta erabilgarriagoak egitea ahalbidetzen dute, espezieen banaketa geografikoa eta fenologia patroiak ikertzen lagunduz.

Zerrenda osoak egitea bultzatzeko **ORNITHO EUSKADI SARIA** sortu genuen.

Sariak bi helburu ditu:

- 1.- Kalitatezko herritarren zientzia indartzea, balio zientifiko altuko datuak biltzera bultzatzuz.
- 2.- Herritarrei beren ekarpena aitortu, behaketaren esfortzua kontutan hartzen duen zozketa sistema baten bidez. Saria, 2018ko Hegaztien Astea emango dena, Swarovski markako prismatikoak dira, 2.000 € baino gehiagoan baloratuak.

Sariari buruzko xehetasun gehiago ikusteko edo nola parte hartu jakin nahi izanez gero, egin klik ondorengo [estekan](#).

Lista oso bat nola egin ikusteko, begiratu “Zer da lista oso bat?” sekzioan, honako [esteka](#) hau klikatu.

# Laster ornithon...



shutterstock

Buztangorri iluna *Phoenicurus ochruros*

## Ugalketa garaian, erabili atlas kodeak

Udaberria heltzearekin batera bizitzaren zikloak hasiera emango dio, beste behin, ugalketari. Hegaztiei dagokienez, gogoratu behar dugu Euskadiko Hegazti Habiagileen Atla datu bilketan dabilela momentu honetan. Horregatik, ugalketan dagoen edozein hegaztiri buruzko aipamen oro interesgarria eta baliotsua da Atlaserako. Testuinguru honetan, atlas kodea erabiltzera animatzen zaituztegu, honela, gure hegazti habiagileen ugalketa prozesuari buruzko informazio zehatzagoa izatea lortuko baitugu.



Gainera, zure behaketa Donostian izan bada, udalerri honetan egiten ari diren atlasa osatzen lagunduko duzu.

**Animatu zaitez eta egin zure ekarpena Atlasean!**

Habia egitea	Kodea	Azalpena
Posiblea	A1	Garai eta leku egokian hautemana
	A2	Arra kantari
Probablea	B3	Bikotea hautemana
	B4	7 egun baino gehiagoz hautemandako territorioa
	B5	Gorteatzea
	B6	Ugalketarako leku posiblea bisitatzen
	B7	Helduaren alarma
	B8	Inkubatze-plaka
	B9	Habiaren eraikuntza
	C10	Harrapakariak desbideratzeko jokaerak
	C11a	Urteko habia
Segurua	C11b	Arrautza-oskolak
	C12	Hegan ikasi berria
	C13a	Okupatutako habia
	C13b	Heldua inkubatzen
	C14a	Heldua gorotz zakuekin
	C14b	Heldua txitei jaten ematen
	C15	Habia arrautzakin
	C16	Habia ikusitako edo entzundako txitekin

# Proiektuak



## AtlaSS: Donostiako hegazti habiagileen atala

Donostiako hegazti habiagileen atala udalerrian umatzen duten espezie guztien banaketa ezagutzeko proiektu bat da. Asmo handiko ekinmen bat da, hiru urteko iraupena duena (2017-2019), hegaztien eta biodibertsitatearen mundura loturik dauden hainbat elkareren adostasun eta parte-hartzetik sortu zen eta hirittarak ere prozesuaren parte aktiboa izango dira.

Proiektuaren lehenengo bi urteetan zehar, 2017 eta 2018, hegazti habiagileak identifikatzeko zentsoak egingo dira. Donostiar guztiak aukera daukate Ornitho.eus atarian behaketak sartzeko eta bide honetatik bildu diren behaketak ere proiekatura gehituko dira.

Proiektuari buruz gehiago jakin nahi baduzu interneteko [www.atlass.eus](http://www.atlass.eus) ataria bisita dezakezu.



Espezie inbaditzailak  
hautematen lagundu!

[www.ornitho.eus](http://www.ornitho.eus) atariak gure lurraldean agertzen diren hainbat espezie inbaditzaileren behaketak erregistratzeko aukera ematen du, hala nola, landare exotiko inbaditzailak, liztor asiatikoa edo zebra muskuilua.

Lagundu iezazezue ikertzaile eta kudeatzaileei espezie horiek hautematen hobeto aurre egin ahal izateko!



Gorka Belamendia

## Gorka Belamendia Ataria

### • Zer da Ataria?

Salburua parkeko bisitarien gunea da Ataria. Berezko nortasuna eta izaera emblematikoa duen eraikina da, eta bisitariak Salburuako hezegunera natura-ondare honekiko jakintza eta errespetu gehiagorekin sartzea ahalbidetzen du.

Ekipamendu hau erreferentea da gasteiztarrentzat, Salburuako parkea bera den moduan. Bertan adeitasuna da nagusi, eta leku lasaia, erosoa eta sartzen erraza da, elkargune bat. Bertan jendea konpromisorik gabe egon daiteke eta kolektibo zehatz bat (naturalistena) lekua kentzen ari direneko sentsaziorik sentitu gabe lasai sartu daiteke.

- **Zer egiten duzue Atarian? Herritarren zientziari loturiko zer ekintza egiten duzue?**

Atariak jolaserako, aisiajdirako, heziketarako, ikerketarako eta ingurumen interpretaziorako ekintza ezberdinak eskaintzen ditu. Bere puntu indartsuena Salburuako parkea da, zeinari zerbitzua egiten dion. Gure ekintzen bidez komunikazio, heziketa eta ingurumenaren interpretazioan sakontzen laguntzen dugu. Esan beharra dago, Atariak zerbitzuak eskaintzen dituen leku bat izate hutsa gainditu duela, ideia berriak sortu eta eztabaidatzen dituen foro bat bihurtuz. Horrela, Ataria marka, balio eta ideia batzuei lotuago dago zerbitzuak eskaintzeari baino.

Hala ere, zigilu hau eskuratzeko, Ataria kalitatezko programa zabal batean oinarritzen da. Ekintzen multzo zabalean topatu ditzakegu etapa guztiako eskola-umeei zuzendutako programa oso bat, familiei eskainitako ekintzak edo gazteentzako prestaturiko ekitaldi ludikoagoak. Egoitzan ekitaldi kontzeptualagoak ere antolatzen dira, hala nola ikerketa lanak, kudeaketa planak edo espezie ezberdinak maneiatzeko teknikak. Halaber, beste sensibilizazio lerro batzuk existitzen dira gure natura-ondarea hobetzeko herritarren partehartzea bultzatzen dutenak. Herritarren zientziari loturiko iniziatica hau, 2013an sortu zena, 5 kontserbazio programez osaturik dago: orkideak, odonatuak, hegaziak eta eguneko eta gaueko tximeletak; eta hiru jarraipenezkoak miken, enara azpizurien eta hamar espezie exotiko inbaditzailerentzat populazioen ikerketa eta kartografiatza burutzeko.

- **Maila guztiarako da edo aldez aurreko prestakuntza behar da?**

Sarean parte hartzen duten pertsona guztiekin jasotzen dute aurretiko prestakuntza. 10 orduko kurtso batean jarraipena egin behar zaien espezieak identifikatzen ikasten da.

- **Zein talde taxonomikoekin egiten duzue lan?**

Sareak hiri eremuan ezezagunak diren taxoiekin egiten du lan, hala nola gaueko tximeletak edo odonatuak. Hala ere, iniziatica orkideen kontserbazio programa batekin hasi zen, udalerrian ezezaguna zen talde taxonomiko bat izanik. Gaur egin, Sare hau ornitologiara zabaldu da hirietako populazioen egoera eta joerak ezagutzeko helburu-arekin.

- **Ze jende talderekin egiten duzue lan?**

Gasteizko Herritarren Zientzian Parte Hartzeko Sarean dabiltenen profila heterogeneoa da adina, sexua, formakuntza edo parte hartzera eramatzen dituzten arrazoiei dagokienez. Guztiak batzen dituen ezaugarri bat badago, hori biologian dituzten esperimentziak elkarbanatu eta konpromezuak hedatzeko gogoa da. Horrela, oroitzapen eder bat izateaz gain, jarraitzeko gogo indartsu bat sortzen zaie, espezieen egoera konprobatzeko jarraitu eta berriren bat topatzeko anbizio natural horrekin.

- **Proiektuak besterik gabe dibulgaziozkoak dira edo interes zientifikoren bat izan dezakete (adib. Lorturiko datuak ikerketa proiektuetan erabiltzea)?**

Benetan, Gasteizko Herritarren Zientzian Parte Hartzeko Sarea, Gasteizko Eraztun Berdeko eremuak eta habitat naturalak hobetzera bideratutako proiektu bat da. Habitat hauetan bizi dira jarraipena egiten zaien espezieak. Bestalde, espezieen katalogazio eta inbentarioko datu iturri garrantzitsua ere bada, hauen gainean dugun informazioa hobetzen laguntzen duena eta, horrela, berauen kontserbazioa bultzatzen duena.

**• Zein instalazio eskaintzen dizkio Atariak bisitariari?**

Esan beharra dago, proiektatu zen momentutik Ataria ez dela bakartutako ekipamendu bat bezala ikusi. Aitzitik, inguruan duen hezegunearekiko sentsibilizazioa eta ezagutza zabaltzeko leku bat bezala ulertzen da. Filosofia honekin eta bere erakargaritasuna hobetzeko, egoitzaren inguruan bestelako eremuak sortu dira Atariaren interpretazio funtzioa osatzen dutenak.

Zentzu honetan, sarrera belardi gune bat da, jolas guneak, putzuak eta zuhaitz handiak dituena, besteak beste. Inguruetai aisiaaldiak guneak eta egoitzaren erakusketa iraunkorra osatzen duten elementuak kokatzen dira. Azkenik, parkerako sarreran es-kailera batzuk daude egoitza aintziren gunearekin lotzen duena. Bertan hegazti urtarra eta bestelako animaliak aurkitzen dira eta hesiekin itxita badago ere, ibilbide laburrak egiten dira bueltan.

Zentroaren gaikaldeak izaera publikoagoa du eta bertan kokatzen dira erakusketa iraunkorren eta aldi baterako erakusketen gelak, “Ixilekua” izeneko isiltasunaren eremua edo irakurketa gela, harrera-lekura doan ataria eta kafetegia. Hemendik beheko zatira sartzen da eta bertan “hall” bat dugu Salburuako maketa batekin, auditorioa, harrera-gela didaktiko bat eta umeen txokoa. Beheko solairu hau era naturalean luzatzen da kanporantz, urmael eremu baterantz, bertako fauna dibertsitatea ikusteko aukerarekin. Urmael eremu honek bisitari askoren itxaropenak asebetetzen ditu. Eraikuntzaren mugan bada aterpe eder bat bizikletak mailegatzen diren eremura era-mango gaituena.

**• Non ikus ditzake egin daitezkeen ekintzak? Zeinekin jarri behar da harremantzan?**

Web orrialdea da leku egokiena Atariaren bidez eskaintzen diren heziketa eta sentsibilizazio ekintzen Berri izateko ([www.ataria.es](http://www.ataria.es)). Bestalde, hiru hilabetean behin ekintzen agenda argitaratzen da PDF formatuan, estazio bakoitzean egingo diren ekintzen gaineko informazio zehatzia jasoz.

**• Noiz egiten dira ekintzak?**

Atariak ekintzak urte guztian zehar antolatzen ditu, baina udako, Eguberrietako eta Aste Santuko oporretan egiten dira gehienak. Urtero 170 ekintza egiten dira gutxi gorabehera, asteko 2 ekintzako bataz bestekoa emanez.

**• Atariatik sartzen al dira aipamenak Ornitho.eus plataforma? Herritarrek sartzen al dituzte?**

2017ko uztailean hasi genuen ingurumen heziketa ekintzari esker Arkauteko baltsan jasotako informazioa sartzen hasi gara. Urteko igande guztietai egingo da ekintza hau.

Halaber, Gasteizko Herritarren Zientzian Parte Hartzeko Sarean jasotako datuak herritarrek eurek bildutakoak izaten dira. Bestalde, batzuetan ezjakintasunagatik edo elementu teknologikoak falta zaizkielako, aipamenak sarea kudeatzen duten pertsonek igo behar izaten dituzte.

- Zergatik uste duzu garrantzitsua dela jendeak aipamenak Ornitho.eus atarira igotzea?

Denok ziur gaude informazioa maneiatsen jakitea gaur egun “datuen adimena” esaten den horretan oinarritzen dela. Bizi dugun iraultza teknologikoak “adimenaren gizartea” deritzogun horretan lan egitera bultzatu gaitu, eta hau datu bolumen handiei edo “Big Data” delakoari esker mantentzen da.

Jakintza piramide baten puntan kokatzen badugu, ikusiko dugu berau lortzeko datuekin osatutako oinarri sendo bat sortu behar dugula. Honen gainetik dagoen informazioak, hurrengo koskara bidaltzen gaitu, ezagutza dena, ikastea.

Horregatik, jakintza eta ezagutza izateko oso garrantzitsua da gizarteak bere behaketak biltzeko leku apropos bat edukitzea. Izan ere, behar beharrezko baliabidea da ikerketa zientifikoa eta garapen jasangaria bultzatzeko.

Gainera, biltegi hauek irmoak, zehatzak eta osoak izatea lortzen bada, zientziari laguntzeko oinarrizko tresna lortuko dugu eta lurreko biodibertsitatea babesten eta hobeto erabiltzen lagunduko dugu. Beraz, ez da soilik ikertzaileen zerbitzura jarritako tresna, baizik eta gizarte osoarentzako sorturiko zerbitzu garrantzitsua.

- Ornitho bezalako plataforma bat beharrezkoa dela iruditzen zaizu fauna eta flora kudeatzeko?

Bai, hala uste dut. Eta ez soilik fauna eta flora hobetzeko. Pertsonak eta natura lotzen, eztabaidea gai zailetara zabaltzen eta ingurumenaren kudeaketan gizartearen parte hartza bultzatzen laguntzen du. Gainera, administrazioari gure natura-ondasunak zaintzeko praktikak hobetzeko tresnak ematen dizio.

- Zer hobetuko zenioke [www.ornitho.eus](http://www.ornitho.eus) plataformari?

Ornitho.eus-en modulu berriak sortzea gustatuko litzaidake plataformari erabilgarritasun berriak emateko: datuen erabilera estatistikak, informazioa eta espezieen zerrendak edo erregistroei lotutako irudien behaketa.

# *Nire mini-gida*



Igel  
arreak

J. Artilla

Igel arreak ohitura lehortarragoak dituzten basoko anfibioak dira eta, nahiz eta Euskadin oso ugariak eta hedatuak egon, ikusgarriagoa den ur-igel arrunta *Pelophylax perezi* baino ezezagunagoak dira. Azken hau ez bezala, orokorrean, igel arreak araldian bakarrik azaltzen dira ur-masetan eta, gainera, hertsiki gautarrak dira. Euskadin hiru espezie topa ditzakegu, denak tamaina ertainekoak (7-10 zm inguru), kolorazio arrea edo arre-gorritzta eta antzeko itxura dutenak: **baso-igel gorria** *Rana temporaria*, **baso-igel jauzkaria** *Rana dalmatina* eta **baso-igel iberiarra** *Rana iberica*.

Baso-igel gorria espezierik arruntena da, bai hemen eta baita Europan ere. Izen ere, bere ingeleszko izena “commonfrog” (igel arrunta) da. Bere gaztelaniazko izenak bere kolorazioa aipatzen du, baina honek beti ez du gure lurraldean agertzen diren beste igel arrengandik bereizten, nahiz eta pixka bat gorrixkagoa izan ohi den. Espezie honetako helduak baso eremuetan bizi dira eta ur-masa txikiak erabiltzen

dituzte ugaltzeko; gurpil-arrasto edo putzu soilak barne. Halaber, igeletatik lehena da ugaltzen hasten: udazkenean hasita edo, kasu batzuetan, negu amaieran. Errunaldiak aske flotatzen duten arrautza-masa esferikoak dira eta heltzen doazen heinean lauago jartzen doaz. Bere zapaburuak gai dira bere zikloa burutu eta metamorfosia egiteko beste espezieak baino denbora laburragoan. Euskadin ia-ia lurralte osoko baso eremuetan aurkitu dezakegu.


**Baso-igel jauzkariaren** banaketa eremua Europako erdigune eta hegoaldea dira, euskal populazioak mendebaldeen kokatuenak direlarik. Hau ere basoko espezie bat da, baina putzu handiagotan ugaltzeko joera du. Bere ugalketa negu amaieran hasten da, neurri batean baso-igel gorriarekin gainezartzen delarik espezie biak agertzen diren eremuetan. Bere errunaldiak baso-igel gorriaren antzekoak dira, baina landaredi urtarri edo urperatutako adarren bati atxiki ohi dituzte. Bere zapaburuek metamorfosia egiteko aurreko espezieak baino askoz denbora gehiago behar dute eta gainera, ur irekietan egoteko joera dute, hondoan beharrean. Euskadin Arabako lautada edo Nerbioi garaiko oso leku zehatzetan bakarrik topa dezakegu, bere populazio garrantzitsuena bertan egonik. Espezie hau Mehatxatutako Espezieen Euskal Katalogoaren (MEEK) barnean dago.

Azkenik, **baso-igel iberiarra** Iberiar penintsulan bakarrik topa dezakegun espezie endemikoa da, bere banaketan ekialdeen daudenak euskal populazioak direlarik. Euskadin hiru espezieetako urriena da eta, kasu honetan bai, urte osoan zehar ingurune urtarrera loturik dago: ur-laster txikien bazterretara loturik bizi da eta ugaldu ere bertan egiten da. Errunaldiak oharkabeen pasa ohi dira, izan ere, orokorrean txikiagoak izaten dira eta bizi den erreka-toetako ur geldietan dagoen landaredian edo harrietan atxikita egon daitezke. Euskadin batez ere ipar isurialdean eta isurialdeen arteko iragaten eremuan dauden mendilerro batzuetan agertzen da, Gorbeian, Aralarren edo Aizkorriin estate baterako. Populaziorik garrantzitsuena Urdaibai eta Gorbeia artean aurkitzen da. Espezie hau ere MEEK-en sartuta dago.

Hiru espezieen itxura orokorra antzekoa da eta ez dago ezaugarri bakar bat zalantzak gabe bereiztea ahalbidetzen duena. Beraz, horretarako, behaketa egiterakoan habitata eta kokalekua kontutan hartu beharko dira, baita ondoren laburbilduko ditugun hainbat ezaugarri morfologiko ere. Horretarako baimenik izan ezean bertako espezieen manipulazioa edo harrapaketa debekatuta dago, beraz animalia gogaitu gabe behatu daitezkeen bereizgarrietan jarriko dugu arreta. Gainera, gaur egun populazioak murrizten dituzten hainbat gaixotasun agertzen ari dira mundu osoan zehar eta honek bereziki kontuz ibiltzera behartzen gaitu eta ahalik eta gehien haietan kontaktua ekiditea. Era berean, gune ezberdinatik mugitzen garenean oinetakoen garbitasuna muturreraino eraman behar da, hala nola urarekin kontaktuan egon den edozein materialena.

Puntu hauek argitua, hiru espezieak bereizteko hurrengo ezaugarriak begiratzea gomendatzen dizugu (zenbakiek irudiegi egiten diete erreferentzia):

- 1.- Lehenik eta behin, bai baso-igel iberiarrak eta bai baso-igel jauzkariak atzoko hankak luzeagoak dituzte, azken honen izen arruntak iradokitzen duen bezala. Baso-igel gorriak, hanka laburragoak izateaz gain, itxura sendoagoa izan ohi du. Hala ere, atzoko hanken luzera animalia maneiatu gabe ikusteko zaila den ezaugarri bat da. Espezie bat baino gehiago ikusi eta konparatzeko aukera izan ezean, hobe da beste ezaugarri batzuei erreparatzen jarraitzea.



Egilea: C. Cabido

2.- Bizkar-aldameneko tolesdurei erreparatu. Bizkarraldean zehar ateratzen diren bi orbain dira, burutik hasi eta iztaietaraino. Haien artean guztiz paraleloak badira, baso-igel jauzkaria edo baso-igel ibériarra izan daitezke. Baso-igel gorrian ordea, tolesdura biak hurbildu egiten dira sorbalden parean, guztiz paraleloak ez direlarik.

3.- Tinpanoa ere begiratu (azal leunezko borobil bat, hiru espezieek agertzen duten "maskararen" barruan bereizi daitekeena): oso handia bada (normalean begiaren tamaina baino handiagoa) eta begitik hurbil, baso-igel gorri baten kasua izango dugu; handia baldin bada (begiaren tamainakoa), baina begitik urrunduta badago, baso-igel jauzkaria izango dugu; eta, azkenik, txikia baldin bada, bereizteko zaila eta begitik urrunduta, baso-igel ibériar bat edukiko dugu.

4.- Bukatzeko, koloraziori erreparatu diezaiokezu. Baso-igel jauzkariak iztaietan horilimoi tonuak izaten ditu; baina kontuz, baso-igel gorri batzuk ere antzeko tonuak izaten dituzte. Orokorean, bizkarreko kolorazioa oso aldakorra da hiru espezieetan eta ez du balio bereizteko. Dena den, sabelaldeko kolorazioa bai lagungarria izan daitekeela. Bai baso-igel jauzkariak eta bai baso-igel ibériarrak ere, sabel zurixka izaten dute, baina lehenengoak orbanik agertzen ez duen bitartean, bigarrenak orban ilun ugari azaltzen ditu. Baso-igel gorriak, bestalde, krema koloreko sabela izaten du, hainbat tonutako orbanak dituena, laranjatuak askotan. Sabeleko kolorazioa zaila izaten da behatzen indibiduoa maneiatu gabe, baina eztarriko partea ikusgai egoten da eta sabelerako deskribatutako kolorazio berdina izaten du. Horrez gain, baso-igel ibériarraren kasuan oso bereizgarria da eztarri ilunean agertzen den erdiko marra argi bat.



[www.ornitho.eus](http://www.ornitho.eus)

